

Elikadura eta Eskola

JARDUNALDIAK

Lagun hori,

Gure umeen elikadurak kezkatzen gaituelako, **Larrabetzuko herri-eskolako guraso elkarteak**, **EHNE Bizkaia** eta **Euskal Herriak bere eskola** ekimenarekin lankidetzan, **Elikadura eta Eskolari buruzko jardunaldiak** antolatzen dihardu.

Jardunaldi horietan, askotariko gaiak jorratuko ditugu, berbarako, elikadura, osasuna, kalitatea, eskolako jantokien kudeaketa-ereduak, bertako produktuak merkaturatzeko aukerak, baserrien etorkizuna, tokiko ekonomia, elikadura burujabetza... **irailaren 16an eta 17an**, Larrabetzun. Orri honen atzealdean, egitarau zehatza aurkituko duzu.

Zu zeu ere gonbidatu nahi zaitugu gai horien guztien hausnarketan parte hartzera eta biziki eskertuko genizuke Larrabetzura etorriko bazina jardunaldiotara, horretarako aukerarik izanez gero.

Mila esker alde zurretik.



Izen-ematea:

www.larrabetzukoeskola.org/elikadura

Harremanetarako moduak:

elikaduraetaeskola@gmail.com

655 740 367 (Patxi)

630 590 970 (Manu)

elikadura eta eskola JARDUNALDIAK

NOIZ

**Irailak
16-17**

NON

Larrabetzu

IZEN-EMATEA

[www.larrabetzukoeskola.org/
elikadura](http://www.larrabetzukoeskola.org/elikadura)

**SARRERA
doan***

*bazkaria izan ezik

egitaraua

Irailak 16, barikua

18:00 Jardunaldien aurkezpena

Larrabetzuko Eskola / Larrabetzuko Udala

Bideo-emanaldia: *Soberania Alimentaria*

Via Campesina

Nekazaritza iraunkorra eta eskoletako jantokiak

Arantza Arrien (EHNE Bizkaia)



Umeentzako kultur saioak*

Antzerkia / Ipuinak

Bertso berriak baserriari

jarriak

*info + web gunean

Irailak 17, zapatua

09:30 Ongi etorria, herriko plazan

10:00 Ibilbidea herritik zehar

Ogitegia >> baserriak >> arditegiak >>

soloak >> txakolindegia

11:00 Hitzaldiak

■ **Eskola-jantokietako esperientziak** (45')
LARRABETZU, ALTZAGA, ZARAUTZ, URDUÑA...

■ **Ipar Euskal Herriko jantoki kolektiboak** (20')
BIHARKO LURRAREN ELKARTEA

■ **Ekolapiko proiektua** (20')

■ **Aliment^{acc}ion + Unitate didaktikoa** (20')
MUGARIK GABEKO ALBAITARIAK

13:00 Mahaingurua: aurrera begira zer? (45')

Euskal Herriak bere eskola, guraso elkarte eta sindikatu^{etako} ordezkariak

14:00 Elikaduraren inguruko esperientzien trukea

Nekazaritza eta hezkuntzako ordezkariak

HARREMAN SAREA (*networking*)

Aurkezpenak, txartelak, produktuak, esperientziak, merkatu txikia, aldizkariak, erreportaiak, dastaketak...

14:30 Bazkaria bertoko produktuekin



MUGARIK GABEKO
ALBAITARIAK

